

# UDALAK ETA BIOK EUSKARAZ

Euskararen herrian bizi gara. Euskaraz bizitzeko eskubidea dugu eta euskaraz bizi nahi dugu.

Udala da herritarrongandik hurbilen dagoen administrazioa eta baditu hizkuntza politika egiteko konpetentziak. Hortaz, udalari euskaraz bizitzeko dugun nahia errespetatu eta udalarekiko harremanak euskaraz izateko dugun eskubidea bermatzeko eskaria bideratzen diogu.

Zentzu horretan, lehen urrats gisara, udalak eta biok izan beharreko harremanak euskaraz izatea galdegiten diogu gure herriko etxeari.

**ESKARIA:** “Nik, .....-k,  
Durangoko ..... kalean bizi  
naizen, ..... telefono zenbakia dudana eta ..... agiriaren jabe  
naizen honek, nire herriko udalari/etxeari eskatzen diot bion arteko harreman oro  
euskaraz izan dadila eta horretarako beharrezko neurriak har ditzala. Zentzu  
horretan, udalean bertan zein udalekoak diren eraikin eta espazio orotan euskaraz  
artatua izatea eskatzen diot (musika eskola, Pinondo etxea, Durango Kirolak,  
igerileku, kiroldegi, zahar-etxe, liburutegi eta abarrez gain ekitaldi, batzar eta  
abarretan ere)”.

Data: ...../...../.....

Sinadura: